

KEINU-LEIHOAK 16

Normaltasun berria deitzen diote, baina dena da arraroa azken aldian, itsusiagoa, desberdina. Eta desberdintasunik badu aurtengo "Keinu-Leihoak" ere, egoerak horrela behartuta "Keinu-Leihoen" 16. edizioa, 2020an hasi, eta 2021ean bukatuko baita.

Baina ohikotasunetik ere izanen du, eta "Keinu-Leihoak" en normala izaten den bezala, aspaldiko lagunak eta proposamen berriak izanen ditugu gurekin. Mixel, Titika, Vivi eta Galtxetaburu etorri izanak dira lehenago; baina oraingoan, lehendabiziko aldiz, laurek elkarrekin. Jon Ander Urresti estreinakoz hurbilduko da gure leihora, bere bakarkako lehen lanarekin. Eta bukatzeko, gure plazan ohikoak diren Gilkitxaroko lagunak izanen ditugu iazko abenduan estreinatutako lanarekin.

Arraroa, itsusiagoa, desberdina ... baina paretaz zartatuetan ere bada lorarik.



GAZTELONDON ZER BERRI –Mixel Etxekopar, Dominika Rekalt, Pierre Vissler eta Galtxetaburu

Etxahun Barkoxeren inguruan dabil ikusgarri berri hau.

*"Plazak xamar beltzez jaunsten ziren denboretaz ari gatzaizue
Mantolina beltzak begitarateak belauniko ezartzen zituzten denboretaz..."*

Pierre Topet Etxahunen kantuen eta biziaren giroan sartzen da, soinuak, musikaz eta kantuz, bistan da. Kantu ezagunak eta ez hain ezagunak. XIX. mendeko ingurumenean sartzen gira, orduko araudi sozial eta moralari paratuz.

Trajediak badu lekua, baina komediak, umoreak ere bai. Etxahun poeta erromantikoa izan zen, eta bere garaikoa, bertsoak eta kantuak zuten garrantzi handiarekin jendartean.

(Abenduak 3, 18:30, Harriondoa)

TRIBIZ, BASERRI GALDUE – Jon Ander Urresti

700 urtetik gora dituen Bizkaiko baserririk zaharrenaren aurrean bizi naiz, atez ate. Edo honetaz geratzen den **harri eta haga** erorien aurrean. Gure familiaren azken belaunaldiko elkarren arteko gatazkek utzi zuten 1800 metro karratuko baserria arkeologia objektu bihurtzen. Baserri bat gelditzen den momentuan **erortzen** hasten baita.

Zortez, akzioak erreproduzitzeko dokumentu batzuk kontserbatzen ditugu : **Lan tresnak**. Tresna hauek, lanaren nostalgiaren inguruan zabalduko digute gogoeta: Akzio hauek ote dira gure **ondararik** handiena?

Baserritarren bilobak aktoreak dira gaur egun: eszenaren bizitza, akzio eta tresna horien oihartzunaren erabilera bilatzen duten baserritar posmodernoak. Egungo gaia da baserriarekin dugun gatazka: erabilera galtzen ari den ondarearekin **zer egin?**

Min egiteari uzten ez dionak bakarrik irauten du memorian. (Friedrich Nietzsche)

(Abenduak 5, 18:30, Harriondoa)

ETAren AGIRI BULEGOA – Gilkitxaro

Non hartzen dira herri honen erabakiak, bulegoetan ala barrikadetan?

Petral Bilbao ETAren agiri bulegoko langilea da. ETAren zigiluak banatzea da bere eginkizun bortitza. Makal Xiberu bulegora dator, eginkizun sekretu batekin. Petralek, ordea, arnasa hartzeko denbora eman gabe, bestea ezustean harrapatu, ETAren agiria lortzeko probak ezarriko dizkio.

Metraileta baten erritmora bizi den komedia.

(Urtarrilak 8, 20:00, Arrano)

MAIRU ANTZERKI TAILERRA